

2009-03-04

' Baserria komikietan ' tailerra antolatu dute Igartubeiti Museokoek larunbaterako

Larunbatero ekintza berri bat egongo da.

Aurreko hilabeteetan Saskigintza eta Abarkak erakustaldiak eta tailerrak antolatu dituzte Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserrikoek, eta martxoan ere familientzako beste tailer didaktiko batekin datoz, oraingo gaia baserria komikietan izango delarik.

Igartubeitikoek esan dutenez, hemendik aurrera astebururo ekintza desberdin bat antolatzekeo intentzioa dute. Horrela, larunbatetan umeak eta familiak biltzejko aukera izango dute bertan gai desberdinak landuz. Gainera, eta hilabete bakoitza ondo amaitzeko ' Igartu ' merienda ospatuko dute azken asteburu guztietan. Beraz, larunbat honetan martxoko lehenengo ekintza ospatuko da Igartubeitiko interpretazio zentruan. Oraingoan ez da erakusketarik egongo, baina gaztetxoek, beraien familiekin batera, baserria ezagutzeko aukera desberdin bat izango dute, komikiei esker.

Tailerra larunbatean izango da eta arratsaldeko 16:00etan hasiko da 19:00etan amaituko delarik. Bertan irudimena landu eta baserriko mundua hobeto ezagutzeko aukera zabalduko zaie, beraien komikiak marraztuz.

Ekintza honetan parte hartzeko izena aurretik eman beharko da eta modu desberdinetan egin daiteke: 943 72 29 78 telefonora deituz; Interpretazio zentruan bertan; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo museoko web orrian.

Bisita gidatuak

Egun honetan ere, besteetan bezala eta nahiz eta ekintza berezi bat egon, bisita gidatuak egongo dira Igartubeiti baserri museoan. Hauek goizeko 11etan eta 12:30ean, eta arratsaldeko 17:00etan izango direlarik. Gogoratu larunbatetan sarrera doan dela.

M. GALILEA